**EBAZPENA, 2024KO ABENDUAREN 2KOA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALEKO SAILBURUORDEARENA, HAZITEK PROGRAMAREN 2024KO DEIALDIKO I. FASEAN ONARTUTAKO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK ONARTZEKO II. FASEA EBAZTEN DUENA**

Aztertu dira erakunde eskatzaileek HAZITEK programaren 2024ko ekitaldiko II. fasearen deialdian parte hartu ahal izateko aurkeztu dituzten eskariak eta gainerako agiri osagarriak.

## AURREKARIAK

Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearen 2024ko uztailaren 3ko ebazpenaren bidez HAZITEK 2024 programan diruz lagundu daitezkeen proiektuak onartu ziren.

Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearen 2024ko uztailaren 16ko ebazpenaren bidez argitara eman zen 2024 ekitaldirako HAZITEK programaren II. Fasearen deialdia.

Aipatu programarako baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan ezarritako aurrekontu-partidetatik datoz. Programa hori finantzatzen laguntzen du, era berean, Eskualde Garapenerako Europar Funtsak (EGEF funtsak). Erakunde onuradunen betebeharrak erantsi dira.

Erakunde eskatzaileek beren laguntza-eskariak eta gainerako agiriak aurkeztu dituzte II. fasean, HAZITEK programa arautzen duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko urtarrilaren 10eko Aginduan ezarritakoaren arabera.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

HAZITEK programan diruz lagun daitezkeen proiektuak dira industria ikertu eta garapen esperimentalak egiten dituztenak, lehiakorrak izan nahiz estrategikoak izan, baldin eta 2024ko urtarrilaren 10eko Aginduaren 6. artikuluan adierazitako guneetan aritzen badira eta baldintzak betetzen badituzte.

**RESOLUCION DE 2 DE DICIEMBRE DE 2024 DE LA VICECONSEJERA DE TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL, POR LA QUE SE RESUELVE LA FASE II DE APROBACIÓN DE AYUDAS A LOS PROYECTOS APROBADOS EN LA FASE I DEL PROGRAMA HAZITEK-CONVOCATORIA 2024**

Vistas las solicitudes y demás documentación complementaria presentadas por las entidades solicitantes para acogerse a la Convocatoria de la Fase II del Programa HAZITEK, ejercicio 2024.

## ANTECEDENTES DE HECHO

Mediante resolución de la Viceconsejera de Tecnología, Innovación y Transformación Digital de 3 de julio de 2024 se aprueban los proyectos susceptibles de ser apoyados en el programa HAZITEK 2024.

La Resolución de 16 de julio de 2024 de la Viceconsejera de Tecnología, Innovación y Transformación Digital, hizo pública la convocatoria de la Fase II del programa HAZITEK, para el ejercicio 2024.

Los recursos económicos destinados al citado programa proceden de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. A la financiación de este programa contribuye el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (Fondos FEDER). Se anexan las obligaciones de las entidades beneficiarias.

Las entidades solicitantes han presentado sus solicitudes de ayuda y demás documentación a la Fase II, conforme a lo dispuesto en la Orden de 10 de enero de 2024 de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se regula el Programa HAZITEK.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

En el programa HAZITEK son clasificados como subvencionables los proyectos de investigación industrial o desarrollo experimental, tanto de carácter competitivo como de carácter estratégico, que cumplan los requisitos y en las áreas señaladas en el artículo 6 de la Orden de 10 de enero de 2024.

I. fasean onartu diren, II. faserako laguntza-eskaria aurkeztu duten eta proiektu eta onuradunei dagokienez 2024ko urtarrilaren 10eko Aginduaren 3. eta 21. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten diru-laguntzak esleitzean, 2024ko urtarrilaren 10eko Aginduaren 9. artikuluan zehazten diren zenbatekoak esleitu dira.

La asignación de las subvenciones a los proyectos aprobados en la Fase I que han presentado la solicitud de la ayuda a la Fase II y que cumplen los requisitos establecidos, en relación con los proyectos y beneficiarios, en los artículos 3 y 21 de la Orden de 10 de enero de 2024, se ha realizado conforme a las cuantías que se determinan en el artículo 9 de la Orden de 10 de enero de 2024.

Espediente osoa eta ebaluazio-organoak emandako txostena ikusita, Teknologia eta Berrikuntzako zuzendariak behin betiko ebazpen-proposamena egin du. Proposamenean, laguntza zein proiekturi emateko proposatzen den jaso da, zerrenda batean. Halaber, proiektu horretako bakoitzean honako datu hauek jaso dira: bere ebaluazioan lortutako puntuazioa, onartutako aurrekontua, proiektua egiteko epeak eta laguntzaren zenbateko osoa. Ebazpen-proposamenean jaso da, halaber, ezetsi behar diren eskarien zerrenda, deialdiaren baldintzak betetzen ez dituztelako. Ezesteko proposamen horien arrazoiak ere berariaz azaldu dira.

A la vista del expediente y del informe emitido por el Órgano de evaluación, el Director de Tecnología e Innovación ha formulado la propuesta de resolución definitiva con la relación de proyectos para los que se propone la concesión de la ayuda, indicando para cada uno de ellos la puntuación obtenida en su evaluación, el presupuesto aprobado, los plazos para su realización y la cuantía global de la ayuda. La propuesta de resolución, también integra la relación de las solicitudes que se propone desestimar por no cumplir los requisitos de la convocatoria, junto con la motivación que fundamenta la propuesta de desestimación.

Kontuan hartuta aipatutako lege-aginduak eta gainerako xedapen orokorrak nahiz bereziak, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak, Agindu arautzailearen 25. artikuluko 1. zenbakiak ematen dizkion eskumenez baliatuz, honako hau

**EBAZTEN DU:**

**Lehena**: **Diruz lagundutako / ezeztatutako proiektuen zerrenda** dokumentuan jasotzen diren laguntzak ematea edo ezeztatzea erakunde onuradunei. Agiri hori deskargatzeko eta kontsultatzeko zure proiektura sartu behar duzu helbide honetan http://www.spri.eus/Hazitek.

**Bigarrena**: Hazitek deialdian zure proiektuak lortutako emaitza jakinaraztea ebazpen honen I. Eranskinean.

**Hirugarrena**: Proiektu lehiakorretarako emandako diru-laguntza itzuliezinaren **% 70 ordaintzeko** eta proiektu estrategikoetarako 2024ko urterokorako emandako diru-laguntza itzuliezinaren **% 50** ordaintzeko agintzea.

Ordainketa hori ebazpen hau jaso eta hamabost eguneko epean egingo da, onuradunak berariaz uko egiten ez badio.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y especial aplicación, la Viceconsejera de Tecnología, Innovación y Transformación Digital, en virtud de las facultades que le otorga el punto 1 del artículo 25 de la Orden reguladora

**RESUELVE**

**Primero**: Conceder y denegar a las entidades beneficiarias las ayudas que se relacionan en el documento **Relación de proyectos subvencionados / denegados** que podrá descargarse y consultar accediendo a su proyecto en: http://www.spri.eus/Hazitek.

**Segundo**: Informar del resultado obtenido por su proyecto en la convocatoria Hazitek en el Anexo I de esta resolución.

**Tercero**: Ordenar el **pago del 70%** de la subvención no reintegrable concedida a los proyectos de carácter competitivo y del **50%** de la subvención no reintegrable concedida para la anualidad 2024 a los proyectos de carácter estratégico.

El abono se realizará transcurrido el plazo de quince días desde la notificación de esta

resolución sin que medie renuncia expresa por parte del beneficiario.

Emandako diru-laguntzak bete egin behar du Bermeen eta Itzulketen Araubide Orokorra, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoa (Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena).

La subvención concedida se encuentra sometida al Régimen General de Garantías y Reintegros establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las entidades colaboradoras que participan en su gestión.

Ondorioz, **aurreratu beharreko kopurua 180.000,00 eurotik gorakoa bada**, erakunde onuradunak finantza-erakunde baten **ABALA** edo administrazioak askitzat jotzen duen beste edozein berme-mota **aurkeztu beharko du**, aurretiazko ordainketa jaso aurretik.

En consecuencia, **siempre que la cantidad a anticipar tenga un importe superior a 180.000,00 euros,** la entidad beneficiaria **deberá presentar un AVAL,** de una entidad financiera u otro tipo de garantía que la Administración estime suficiente, con carácter previo a la percepción del pago anticipado.

**Laugarrena**: Proiektu lehiakorrei emandako diru-laguntzaren gainerakoa ordaintzean eta lehen urterokoaren gainerakoa ordaintzean, nahiz proiektu estrategikoen kasuan hurrengo urterokoak ordaintzean, diruz lagundutako ekitaldi bakoitzeko jarduerak egin direla agiri bidez justifikatu beharko da. Horretarako, **amaitutako urtearen ondorengo urtearen lehen hiruhilekoan** aurkeztu beharko dira bidezko agiriak.

**Cuarto**: Señalar que el abono del resto de la subvención concedida a los proyectos de carácter competitivo y el abono del resto de la primera anualidad, así como las sucesivas anualidades en el caso de los proyectos de carácter estratégico, estará condicionado a la presentación de la documentación justificativa de la realización de las actividades de cada ejercicio subvencionado, que deberá **realizarse durante el primer trimestre siguiente al del año concluido.**

**Bostgarrena**: Ebazpen honekin batera doaz urteko justifikazio-kontua eta gainerako dokumentuak aurkezteko argibideak.

**Quinto**: Las instrucciones para la presentación de la cuenta justificativa anual y el resto de los documentos necesarios se adjuntan a esta resolución.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari. Beronen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko da Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritakoaren arabera.

Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer Recurso de Alzada ante el Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 2a

Vitoria-Gasteiz, a 2 de diciembre de 2024

Jaione Ganzarain Epelde
TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALEKO SAILBURUORDEA
VICECONSEJERA DE TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL

dte@euskadi.eus – Donostia- San Sebastian, nº1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

JAIONE GANZARAIN EPELDE - 15990064G
Firmado digitalmente por JAIONE GANZARAIN EPELDE - 15990064G
Fecha: 2024.12.02 15:04:32 +01'00'